Bizkaiko Dantzarien Biltzarra

# BIZKAIKO DANTZARI EGUNA

# 2015 ZALLA

## MAIATZAK 17




BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Zalla
Ayuntamiento
Udala

# EGITARAUA




## *MAIATZAK 17 Igandea*

***11:00 Taldeen Kalejira.***

***11:30 POLIKIROLDEGIAN Dantza Talde Ekitaldia***

**DANTZARI DANTZA**

Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata Joko Txikiak, Banangoa, Binangoa, Ezpata Joko Nagusia, Launangoa, Makil Jokoa, Txontxongiloa.

**GIPUZKOAKO DANTZAK**

Agurra, Makil Txiki eta Zinta dantza

**JOLAS DANTZAK - TXIKIAK**

Txulalai, Zapatain dantza, Xan Petrike dantza esta Esku dantza.

**IBARZABAL – ARKU DANTZA**

**ELTZIEGOKO DANTZAK**

Correcalles, La Danza, Cuatro Calles, Arbol, Jota

**GORULARIAK**

Domingiloa eta Arku dantza

**DANTZARI ERTAINAK - TXIKIAK**

Zazpi Jauziak, Antzina Pika eta Hegi

**KAIXARRANKA**

**LARRAIN DANTZA**

***11:00 ERMITAN: Folklore Azoka eta umeentzako Jolasak eta tailerrak***

***17:00 ERROMERIA LUHARTZ taldearekin Euskadi Plazan***

# ALKATEAREN AGURRA




Dantzak oso leku garrantzitsua du gure kulturan eta Euskal Herriaren izaeran.

Beraz, legatu hori transmititzen, indartzen eta zabaltzen jarraitu behar dugu, etorkizuneko belaunaldiek ere jaso dezaten geure kulturaren lekukoa. Azken batean, horrek definitzen gaitu eta horrek egiten gaitu komunitate baten partaide. Ildo horri jarraikiz, Udalak horrelako kultur ekimenak sustatu nahi ditu, are gehiago, kontuan hartuta gure kulturaren adierazpen sustraituenetarikoa eta garrantzitsuenetarikoa dela.

2015eko maiatzaren 17a, zalantzarik gabe, oso egun berezia izango da guretzat. Garrantzi handiko jarduera bat izango dugu gurean: gure kultura indartzeko aukera izango dugu eta, gainera, ohore handiz ospatuko dugu herriko IBAI LORAK taldearen 50. urteurrena. Zorionak eman nahi dizkiogu, urte hauetan guztietan egin duen lan eskergagatik; bereziki, dantzaren inguruan egindakoagatik.

Ez dut uste neurriz kanpokoa denik esatea udalerri osoa harro dagoela hain ekimen garrantzitsua egiteaz. Zallar guztion izenean ongietorria eman nahi dizuegu eta gure herria zuen esku jartzen dugu; izan ere, zuek hemen egoteak aberastasuna emango dio herriari eta gure euskal kulturaren ekitaldi berri bateko partaide bihurtuko duzue.

Bete ezazue Zalla giro euskaldunaz, koloretsuz eta alaiaz!
Eta ez dadila txoko bakar bat ere geratu jota edo arin-arinik gabe!

Denok dantzara!!



Udaletxea
Ayuntamiento
Erromeria
Taberna gunea
Bazkalgunea
El Longar
Bolunburu
La Llana
La-Llana
BI-3602
San Miguel
Ligueti
Tepeyac
Sabino Arana
Euskadi enparantza
Nuestra Señora del Rosario
Hermanos Maristas
Euskadi
Lehendakari Agirre
BI-3636
Artebizkarra
Kosme Bibanko
Taramona
Luis Sese
Bizkaitarra
Andres Aya Goñ
Lanzagorta
El Carmen
Juan Francisco Estefa
Gudari
Foruen kalea
Gipuzkoa
Villa Gernika
Landarondo
San Pedro
feve
renfe
WC
Presa
Laluga
Gobeo
BI-3651
Longar
Ibarra
BI-636
Mendieta
Uribarri
Llantada
Gallardi
La-Presa
488500




## Intereseko informazioa
## Información de interés

| Ikurrak | Simbología |
|---|---|
| Kalejira | Pasacalle |
| Elkargunera bidea | A punto de encuentro |
| Bazkalgunea | Área picnic |
| Atsedenlekua | Área recreativa |
| Txosna | Txosna |
| Iturria | Fuente |
| Bainuak | Baños |
| Haur jolasak | Juegos infantiles |
| Anbulatorioa | Ambulatorio |
| Anbulantziak | Ambulancias |
| Botika | Farmacia |
| Gasolindegia | Gasolinera |
| Taldeen autobusak | Autobuses grupos |
| Aparkalekua | Aparcamiento |
| Autobus geltokia | Parada de autobús |
| Tren geltokia | Parada de tren |
| Taxia | Taxi |

| Guneak | Espacios |
|---|---|
| Dantzagunea | Alarde danzas |
| Bazkalgunea | Zona picnic |
| Azoka - Erromeria | Feria - Romería |
| Taberna gunea | Zona de bares |

BIZKAIKO DANTZARI EGUNA

# ZALLA 2015

Bizkaiko dantzarien urteko jai nagusia da, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrean federatutako dantza taldeen topaketa eta bilerarako gunea.

Gutxi gorabehera, ehun bat taldek parte hartzen dute, eta hauek aurretik prestatutako dantzen egitaraua eskaintzea dute helburu, talde guztiek urtean zehar egiten duten prestaketa eta lanaren ahalegina biltzen duena.

Asko dira entseguak, prestaketa-egunak, dantzen errepertorioaren ikasketa,... etab. Guztia dantzariaren eguna batera eskain dezaten ezohiko neurriak dituen eskenatoki batean (futbol-zelaia), bertan dena ahalik eta hobekien atera dadin saiatzen dira, eta ondo egiteko ahalegina partaideek, bere adina edozein dela ere, erakusten duten gogoan islatzen da eta, gainera, taldeen prestaketa eta horietako bakoitzaren eta multzoaren kalitate maila agerian geratzen dira, kalitate handiko momentuak, bikainak, miresteko aukera izaten dugula.

Horretaz gain, gure folklorearen balioak eta garrantzia txikienei, gurasoei, zaleei eta jendeari oro har helarazteko ere balio du.

Urtero eskualde ezberdin bateko herri ezberdin batean egiteak, gainera, ekitaldi hau Bizkai osora eramatea ahalbidetzen du, eta dagoeneko lurralde osoan barrena ibili da.

Halaber, 25 urte baino gehiago hauetan, ikusi eta bizi dutenak asko izan direla, asko antolatzen parte hartu dutenak eta asko laguntzaileak ere kontuan hartu behar dugu.

Partaideek, interes eta erantzukizun handiz, bizitako giro honen barruan ere, zergatik ez esan, ospakizun eta festarako, dibertsio eta dantzarako tokirik ere badago, ekitaldi nagusiaren ostean, arratsaldez, egiten diren erromerietan ikus daitekeenez, bertan dantzariek ederki pasatzen dute oso giro onean.

IKASTAROAK

# DANTZA IKASTAROA
# CURSILLO DE DANZAS POPULARES

***Oinarrizko maila /*** *Nivel Básico*
***Erromerietako dantzak /*** *danzas de romeria*
***Dantza plaza /*** *danzas de plaza*
***Jota – Arin arin***
***Larrain dantza /*** *Baile de la Era*

# GAITA IKASTAROA
# CURSILLO DE GAITA

# TRIKITRIXA IKASTAROA
# CURSILLO DE TRIKITIXA

# PERKUSIO IKASTAROA
# CURSILLO DE PERCUSION

***Txalaparta, Panderoa, Atabala, Danborra…***

***Ordutegi malguak*** / *Horarios flexibles*
***Informazio gehiago*** / *Más información*

Bizkaiko Dantzarien Biltzarra

***Luis Briñas 31, 48013 Bilbao*** Tf/Fax: 94 441.85.63 – 649.647.483
www.dantzanet.net - dantzanet@gmail.com

Bizkaiko
Dantzarien
Biltzarra

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Zalla
Ayuntamiento
Udala

noticias
GRUPO TALDEA

viajes
arzabe
C.I.E. 2012
bidaiak

EROSKI
ZALLA